



Usurbilgo Udala

## **HASIZ HAZI BEKA**

### **EKINTZAILEENTZAT KABIENE ELKARTEAK DUEN ELKARLAN-GUNEAN EGONALDIRAKO BEKA**

Beka hau Kabiene eta Usurbilgo Udalaren arteko lankidetzan oinarritzen da. Kabiene Usurbilgo freelance eta autonomoen elkarteak 2016ean sortu zen, herriko hainbat profesionalen premiek bultzatuta eta helburu argi batzuekin, hala nola elkarlaneko ekonomia eta justizia soziala sustatzea eta hedatzea; lokal bat eskaintzea profesionalak, elkarteak eta artistak, lanerako espazioak ez ezik, baliabideak eta esperientziak partekatzeko leku bat izan dezaten; norbanakoekin eta beste elkarte batzuekin elkarlanean arituta sortzen diren proiektu laboralak eta artistikoak erraztea eta sustatzea; eta proiektu horiek abiarazteko espazio bat eskaintzea.

Usurbilgo Udalak beste alde, ekintzaileei laguntza eskaini nahi die sor daitezkeen enpresa proiektu berriak garatu ahal izateko. Horretarako Beterri Buruntza eskualdeko ekinean zerbitzuan eskaintzen diren laguntzaz baliatzeko aukera ere izango dute .

#### **1.XEDEA**

Proiektu berri bat duten ekintzaileek beren enpresa proiektua garatzen duen bitartean laguntzeko baliatuko diren arauak biltzea da oinarri hauen xedea.

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak izango dira laguntza ekonomiko horiek

Proiektu berri bat duen ekintzaileari, urtebeteko egonaldia diruz ordainduko zaio Kabiene elkarteak duen elkarlan-gunean, lanerako espazio bat ez ezik, baliabideak eta esperientziak partekatzeko leku bat izan dezaten. Bekadunek bertan lanean ari diren kideen esperientziatik ikasi ahal izango dute eta harreman-sare indartuago batekin ekin ahal izango diote lanari.

Beterri-ekinean zerbitzutik tutorizazio bat emango da, eta enpresa abian jartzea eta finkatzearekin lotutako laguntzak ere eskainiko zaizkio, horrela badagokio.

Beterri Buruntza Elkarlan espazioa proiektuan sortzen den sarean ere kokatzen da proiektu hau, Kabieneren parte-hartzearen eskutik.

#### **2.ONURADUNAK**

Beterri-Buruntza eskualdeko udalerriren batean errolatuta dauden pertsonak, udalerrian enpresa bat sortzeko ekimena dutenak, ekonomi jardueren gaineko zergan alta emanda ez daudenak edo gehienez ere 2017. urtean alta eman berri dutenak, baldin eta bideragarria den negozio plana egin badu Beterri-Buruntza eskualdeko ekintzailetza zerbitzuan.

#### **3.ONURADUNEN BETEBEHARRAK**

-Adinez nagusia izatea



Usurbilgo Udala

- Beterrri-Buruntza eskualdeko udalerritakoren batean (Andoain,Astigarraga,Hernani,Lasarte-Oria,Urnieta eta Usurbil) erroldatua egotea
- Usurbilgo Udalarekiko zerga-betebeharrak beteta edukitzea
- Usurbilgo Udalerrian enpresa bat sortzeko ekimena garatzen ari izatea
- Ekonomi Jardueraren gaineko Zergan alta emanda ez egotea edo gehienez ere 2017. urtean alta eman dutenak, eta norberaren kabuz ekonomia jarduera bat gauzatzen ez aritzea. Garatzen ari diren proiektuak baino ezingo dira aurkeztu, deialdiaren helburua ekintzaileen ekimen berriak definitzen eta abiarazten laguntzea baita.

#### **4.BALIABIDE EKONOMIKOAK**

Deialdi honetan aurreikusitako bekak, Udalaren 2017ko aurrekontutik finantzatuko dira, 1.5000.481.241.00.02 partidatik 2.178 € ezartzen dira horretarako. 1.089 €tako 2 beka emango dira . Diru-laguntzaren zenbatekoa , 12 hilabetetako alokairu gastua (75 €/hileko), eta honi dagokion %21eko BEZ-a (15,75 €/hileko) izango da.

#### **5.EPEA:**

Eskaerak aurkezteko epea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da,2017ko irailaren 30 arte.

#### **6.PROZEDURA**

Hautatze eta jarraipen batzorde bat eratuko da Kabiene elkarte, Beterrri-Buruntza Ekinean zerbitzua, Siadeco eta Garapen eta Hezkuntza saileko teknikariaren artean. Hauek arduratuko dira eskabideak aztertu eta ebaluatzeaz, Ekinean zerbitzuko teknikariak txostena egin ondoren.

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa

Hautatze eta jarraipen batzordeak diru- eskaerak baloratu ondoren , txostena egin eta Garapen eta Hezkuntza batzordera eramango du, honek txostena kontutan hartuta bere iritzia eman dezan. Ondoren, Diru-laguntzen Batzorde Orokorrak ebazpen proposamena egingo du. Jarraian, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da ebazpen proposamenaren inguruko iragarkia eta interesatuak 10 eguneko epea izango du alegazioak aurkezteko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzen den biharamunetik kontaktzen hasita. Azkenik, Tokiko Gobernu Batzarrak emango du diru-laguntzei buruzko behin betiko ebazpena gehienez ere hiru hilabeteko epean, eskaera aurkezteko epea amaitzen den egunetik zenbatzen hasita.

Behin betiko ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da



Usurbilgo Udala

Aipaturiko epea igaro ondoren ebazpenik eman ezean, ulertu behar da eskaria gaitzetsi egin dela, gerora egin daitekeen ebazpenaren kaltetan izan gabe.

Udaleko iragarki taulan eta [www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus) web orrian ere behin behineko proposamenaren eta behin betiko ebazpenaren berri emango da.

## **7.-PROIEKTUAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK**

- Jardueraren nahiz enpresa kudeaketaren inguruko prestakuntza teknikoa: 15 puntu arte
- Jardueraren inguruko esperientzia profesionala: 10 puntu
- Proiektuaren zehaztasuna, argitasuna eta kalitatea: 15 puntu arte
- Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa: 15 puntu arte.
- Lan-planaren zehaztasuna,koherentzia eta edukiak:10 puntu arte
- Interes maila, ekonomi sustapenari dagokionez, kontuan harturik proiektuaren berrikuntza-maila, hastapenetan diren jarduera ekonomikoak, sormen- industriak, ekonomia soziala eta aurreikusten den enplegu sorkuntza: 15 puntu arte
- Kabienez aurkitzen diren eskaintza osatu eta aberasten duen proiektua izatea, lehendik ez dagoen jarduera batean oinarritutako negozioa delako edota lehendik dagoenarekiko osagarria delako: 10 puntu.
- Usurbilen erroldatua: 10 puntu

## **8.-BEKAREN ZENBATEKOA:**

Bekaren gehieneko zenbatekoa 1089,00 eurokoa izango da, beti ere 12 hilabetetako egonaldia izaten badu Kabienez.

## **9.ORDAINTZEKO MODUA:**

Bi zatitan ordainduko da beka: Lehenengo %80a ebazpena ematen denean eta bigarrena berriz %20 12.artikuluan zehazten den memoria aurkezten denean eta baita ere kabienezko egonaldiari dagozkion faktura agiriak

## **10.NAHITAEZKO AGIRIAK:**

- Eskabide-orria eta zinpeko aitortza (I eranskina)
- Nortasun agiriaren kopia
- Enpresa proiektua (II eranskina)
- Lan plana, non aurreikusitako jarduerak, lortu nahi diren helburuak eta egutegia zehaztu beharko bai dira (III. eranskina)
- Beterri-Buruntza ekinezko teknikariak proposatutako tutoretza lanen programa



Usurbilgo Udala

Enpresa proiektua aurkezten ez bada ez da eskabidea onartuko

### **11.AKATSAK ZUZENTZEA:**

Beka eskabideek ez badituzte Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 66. artikuluan xedatutako baldintzak betetzen, edo nortasun agiria zein 10. oinarrian adierazitako lan-plana eransten ez bazaizkie, eskatzaileei 10 eguneko epea emango zaie akatsak konpondu edo falta diren nahitaezko agiriak aurkezteko, eta ohartaraziko zaiela egin ezean eskaera bertan behera utzitzat joko dela

### **12.ONURADUNEN BETEBEHARRAK:**

-Burututako jarduerak eta lortutako emaitzak zehazten dituen memoria sinatua aurkeztea (IV. eranskina) eta alokairuari dagozkion fakturak, egonaldia amaitu eta gehienez ere hilabeteko epean. Beka emateko oinarri izan den jarduera programa -lan planean adierazitakoa gauzatzea, enpresa sorkuntzaren eta kudeaketaren alorreko prestakuntza jarduerak barne.

-Tutoretza plana betetzea

-Emandako beka dela eta Udalak egiten dituen egiaztatze jardueren menpe jartzea

-Helburu bera duen beste bekaren bat eskatu nahiz eskuratuz gero nahiz beka emateko orduan aintzat hartutako edozein zirkunstantzia aldatuz gero, jakitera ematea.

-Kabiene elkarlan gunean antolatzen direnetan parte hartzea eta baita ere eskualdeko elkarlan espazio proiektuan sortzen direnetan.

### **13.DIRUA ITZULTZEA**

Deialdi honetako 8. artikuluan ezartzen duena betez, kabieneko egonaldia ez bada 12 hilabetetako, benetan egondako denboraldia izango da justifikagarria eta gehienez jasotako diru-laguntza itzuli beharko da.

### **14.BATERAEZINTASUNA:**

Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak ez dira bateragarri izango beste edozein erakunde publikok helburu berarekin ematen dituenekin.



Usurbilgo Udala

## I. ERANSKINA ESKAERA

### 1.- ESKATZAILEAREN DATUAK

**Eskatzailearen izena**

**Lehen deitura**

**Bigarren deitura**

**NAN**

**Kargua enpresan**

**Enpresaren izen soziala**

**IFZ**

**Helbidea**

**PK**

**Herria**

**Lurraldea**

**Posta elektronikoa**

**Telefona**

### 2.- ERANTZUKIZUNEN DEKLARAZIOA

**Eskatzaileak zinpeko aitorten hau egiten du:**

\* Ezagutzen eta onartzen dituela laguntza ekonomikoak eta diru laguntzak emateko udal programaren barruan aurkeztu nahi duen deialdiaren oinarrietan ezarritako irizpideak, eta bete egingo dituela.

\* Ez dagoela sartuta diru-laguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo prozeduratan.

\* Ordaindu beharreko zergak ordainduta dituela, baita Gizarte Segurantzako Diruzaintzan ere, eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.2. artikulutik eratorritako gainerako inguruabarrak betetzen dituela.

\* Ez duela beste inongo erakunde publikotik helburu berarekin bestelako laguntzarik jaso izan, eta beste inongo erakunde publikotik helburu berarekin laguntzarik jasoko balu, sail honi horren berri



Usurbilgo Udala

emateko konpromisoa hartzen duela bere gain.

### 3.- DATUAK ESKATZEKO BAIMENA

Usurbilgo Udalari baimena ematen diot Usurbilgo Udalaren beraren artxibo munizipaletan egiazta dezan eta erakunde eskumendunetik behar diren agiri guztiak eska ditzan, eskaera honi dagokion diru-laguntzaren onuradun izateko beharrezkoak diren baldintza guztiak betetzen ditudala egiaztatzeko eta, hala badagokio, eguneratzeko. Interesatuak oposizioko eskubideak egikaritu ahalko dituzte Usurbilgo Udalaren aurrean, horretarako idatzia aurkeztuta.

Usurbilgo Udala baimendua geratzen da dokumentu honetan jasotako datu pertsonalei tratamendu automatizatu emateko. Udala Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoa betetzera konprometitzen da. Interesatuak datuak eskuratzeko, kartzelatzeko, zuzentzeko eta oposatzeko eskubideak baliatu ahalko dituzte Usurbilgo Udalaren aurrean.

### 4.- BANKUKO DATUAK

IBAN	F.E. Kodea	Bulegoa	K.Z.	Kontu-Zenbakia
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

Kontuaren titularra onuradunak izan behar du

n, (e)ko ren (e)an

Sinadura

**USURBILGO ALKATE LEHENDAKARIA**



Usurbilgo Udala

## **NAHITAEZKO AGIRIAK**

**Agiri hauek erantsi beharko zaizkie diru-laguntza eskabideei:**

- 1- Eskabide agiria eta zinpeko aitortpena (I. eranskina)
- 2- Nortasun agiriaren kopia.
- 3- Enpresa proiektua ( II. eranskina)
- 4- Lan-egitasmoa, non aurreikusitako jarduerak, lortu nahi diren helburuak eta egutegia zehaztu beharko baitira. (III. eranskina)
- 5- Beterri Buruntza ekinean zerbitzuaren tutoretza lanen programa.



Usurbilgo Udala

## II. ERANSKINA

### BIDERAGARRITASUN PLANA

#### ZURE ENPRESA-IDEIAREN BIDERAGARRITASUNA AZTERTZEKO ESKEMA

#### **SUSTATZAILEAK**

- Enpresa ekimen berriaren sustatzaileen izen-abizenak.
- Bakoitzaren prestakuntza akademikoa
- Orain arteko lan esperientzia: epeak, enpresak, egindako lanak.
- Enpresa berria sortzeko arrazoiak eta motibazioa.
- Negozioaren forma juridikoa.

#### **1. JARDUERA**

- Jardueraren eta bere sektorearen deskribapena.
- Produktua eta sektorearen ezaugarri bereizleak.
- Produktu/zerbitzuak asetzen dituen beharrak.
- Nire produktu/zerbitzuaren abantailak lehiatzaileekiko.
- Ideiaren alde sendoak, jarduerak aurrera egiteko.
- Ideiaren alde ahulak, jarduera kolokan jar dezaketenak.

#### **2. MERKATU AZTERKETA**

- Jardueraren eremu geografikoa.
- Bezeroak: nortzuk dira, non daude, zergatik erosiko dute nire produktua eta ez beste batena, zein hizkuntza erabiltzen dute
- Lehiatzaileak: lehiatzaile zuzenak eta zeharkakoak, non dauden, prezioak eta baldintzak (zoaz lehiakideak ikustera)...

#### **3. MARKETINGA**

- Zein da nire lehiakideekiko desberdintasuna.





Usurbilgo Udala

- Prezio politika: nola finkatuko ditut prezioak, lehiatzaileekiko nola kokatuko naiz, deskontuak, kobratzeko baldintza...
- Banaketa politika: nola iritsiko da produktu/zerbitzua azken bezeroarengana; zein bide erabiliko duzu (handizka, txikizka...) eta zergatik.
- Hizkuntza politika: zein izango da enpresaren hizkuntza politika? Zein hizkuntzeran eskainiko dut zerbitzua (ahoz, idatziz, errotuluak, fakturak, ekipo informatikoa, eta abar), Zein hizkuntza erabiliko du/ditu produktu zerbitzuak iragartzeko? Zein da zure bezero hartzaileek nahiago duten hizkuntza?

Komunikazio politika: zer egingo duzu merkatuak zure zerbitzu/produktuak ezagutu ditzan?  
Mailingak, irrati tarteak, katalogoa, esku-orria, tokiko komunikabideak...

#### 4. DIRU-SARRERAK

Zeintzuk dira zure negozioaren zerbitzu/produktu familia nagusiak?

Zein da artikulu bakoitzaren salmenta prezioa?

Zein da zerbitzu/produktu bakoitzaren batez besteko irabazi marjina, kostua kontuan hartuta?

#### 6. LANGILEAK

- Zenbat langilek egingo du lan enpresan, zenbat bazkidek?
- Zein izango da enpresaren lan hitzarmena?
- Langileen prestakuntza eta lan-esperientzia.
- Langileen hizkuntza gaitasuna (euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa, ...)
- Kontratu motak eta Gizarte Segurantzako afiliazio mota (autonoma, erregimen orokorra...)
- Lan baldintzak eta baldintza ekonomikoak.



Usurbilgo Udala

## 7. GASTU OROKORRAK

Zeintzuk izango dira zure hileroko gastuak

<b>GASTUA</b>	<b>HILEKO ZENBATEKOA</b>
Alokairuak	
Lehengaiak	
Konponketak eta zainketa gastuak	
Aseguru-primak	
Kanpoko zerbitzu profesionalak (aholkularitza)	
Banketxe-zerbitzuak eta antzekoak (interesak)	
Publizitatea, itzulpenak,	
Hornidurak (ura eta argindarra)	
Komunikazioak (telefonoa/internet)	
Zergak	
Bulego-materiala	
Bidaia-gastuak	
Gizarte gastuak	
Prestakuntza	
Besteak	



Usurbilgo Udala

## 8. EKOIZPENA

- Ekoizpen prozesua.
- Nortzuk dira hornitzaileak, zeintzuk dira erosketa baldintzak, zenbat denboran entregatuko dute...
- Gutxieneko stocka finkatzeko irizpideak.
- Ekoizpen kostu aldakorra eta salmentako irabaziaren marjina.

## 9. INBERTSIOAK

- Hasieran egin beharreko inbertsioak.
- Inbertsioen prezioa.
- Erosketa baldintzak.
- Amortizazio-plana.

	Zenbatekoa
Enpresa eratzeko gastuak	
Lurzorua	
Lokala	
Lokalaren erosketa gastuak	
Alokairuaren fidantza	
Lokalaren eskualdatzea	
Makinak	
Lokala egokitzea	
Irudi korporatibo eta komunikazioa	
Tresnak	
Altzariak eta bulego tresnak	



Usurbilgo Udala

Ibilgailuak edo antzekoak	
Ekipo informatikoak	
Lagapen administratiboak	
Ikerketa eta garapen gastuak	
Aplikazio informatikoak	
Patenteak/markak	
Leasing bidez eskuratutako ondasunak	
Hasierako stocka	
Beste batzuk	

## 10. FINANTZAKETA

- Beharrezkoa den diru kopurua.
- Finantzaketa iturri desberdinak.
- Finantzaketa iturri bakoitzaren ezaugarri eta baldintzak.

## 11. EMAITZA KONTUAK

- Urteko emaitza kontuak.
- Balantzeak.
- Altxortegia: aldez aurrekoa eta urtekoa.
- Gutxieneko errentagarritasuna.

## 12. ONDORIOAK

Bildu eta jasotako informazioarekin **txosten labur bat egin ezazu, alderdirik esanguratsuenak azpimarratu eta hartu duzun erabakia** agertzeko.



Usurbilgo Udala

### **III. ERANSKINA:**

## **LAN PLANA**

#### **1.- Eskabidea aurkeztu aurreko jardueren zerrenda**

#### **2.- Aurreikusten den hileko jarduera-egutegia, honela banatuta:**

- Prestakuntza-ekintzak
- Aholkularitza
- Jardunaldi eta ekitaldietan parte hartzea
- Produktu edo zerbitzua diseinatu eta garatzearekin zerikusia duten jarduerak.
- Merkatu-azterketarekin, bezero-bilaketarekin, marketing-planarekin eta produktu edo zerbitzuaren promozioarekin zerikusia duten jarduerak.
- Hornitzaileak hautatzeko, kokalekua aukeratzeko eta hura egokitzearekin lotutako jarduerak.
- Bideragarritasun ekonomikoa aztertu eta proiektua finantzatzearekin zerikusia duten jarduerak.
- Legezko izapideak betetzeko jarduerak.
- Enpresa abian jartzeko aurreikusitako bestelako jarduerak.

#### **3.- Enpresa abian jartzea aurreikusten den data.**



Usurbilgo Udala

## **IV. ERANSKINA:**

### **MEMORIA**

#### **1. Gauzatutako jarduerak, sailkapen honen arabera antolatuta:**

- Gauzatutako prestakuntza-ekintzak
- Jasotako aholkularitza
- Jardunaldi eta ekitaldietan parte hartzea
- Produktu edo zerbitzua diseinatu eta garatzearekin zerikusia duten jarduerak
- Merkatu-azterketarekin, bezero-bilaketarekin, marketing-planarekin eta produktu edo zerbitzuaren promozioarekin zerikusia duten jarduerak
- Hornitzaileak hautatzeko, kokalekua aukeratzeko eta hura egokitzeko egindako jarduerak.
- Bideragarritasun ekonomikoa aztertu eta proiektua finantzatzearekin zerikusia duten jarduerak.
- Legezko izapideak betetzeko egindako jarduerak.
- Enpresa abian jartzeko egindako beste jarduera batzuk.

#### **2. Lan-planean aurreikusitako jarduerekin alderatzea. Lan-planean aurreikusitako jardueren betetze-maila azaltzea.**

#### **3. Emaitzak. Aurreikusitako helburuak bete al diren eta enpresa osatu al den azaltzea.**

#### **4. Prozesuko oztopo eta zailtasunak.**

#### **5. Proiektuaren perspektibak.**

#### **6. Harremanetarako datuak.**